

Doinu-azentudunaren pertzepzioaz

Iñaki Gaminde

Euskal Herriko Unibertsitatea

Hizkuntza eta Literaturaren Didaktika Saila
igaminde@bips.bi.ehu.es

Abstract

In this article the author presents the results of a test that analyzes the perception of a variety of accented intonation. In order to perform the test, some University students listened to voice signals from Gatica. The results have been analyzed according to four main groups: listeners from Bizkaian varieties that are familiar with the accented intonation, listeners from other Bizkaian varieties, Gipuzkoan listeners and listeners whose Basque is a second language. The purpose of the test is to measure the comprehension level displayed with regards to the accent of this variety.

Laburpena

Artikulu honetan doinu azentudun barietate baten gaineko pertzepzio alorreko test baten emaitzak aurkezten dira. Testa burutu ahal izateko Gatikako seinaleak erabili dira eta entzun eragin zaizkie unibertsitateko ikasleei. Emaitzak lau multzo nagusitan aztertu dira; doinu azentudun barietateetakoak, Bizkaiko gainerako barietateetakoak, giputzak eta euskaldun berriak. Helburua barietate honekiko azentu alorreko ulermena neurtzea izan da.

Hitz gakoak: Fonetika, azentua, pertzepzioa.

1. Sarrera

Azentuari buruzko lanak ugalduz doazena ezin uka daiteke, gaur egun asko da alor honetan dakiguna, nahi eta, nire ustez, oraindino asko den egiteko lotzen dena. Hala ere, pertzepzioa ez da oso landua izan. Gure aurreko lana egin genuenetik (Gaminde 1991) hainbat urte joan dira eta ez dugu lan gehiagorik ezagutu esparru honetan. Guzti horregatik interesgarri begitandu zaigu doinu-azentudun barietate batez lotuta esperimento txiker bat egitea.

Gure oraingo honetan, berbak entzutean azentua zegaz lotzen den ikertu gura izan dugu. Elordieta, Gaminde eta Hualderen (1998) lanean barietate batzuetan egon den azentuaren berregokitzapena gaztelaniaren tonuaren eraginez jazo dela iradoki zen. Aldaketa hau gertatu da hiztun batzuek azentuagaz tonu gorakada lotu dutelako eta ez jatorrizko hiztunek lotzen duten tonu beherakada. Gure lan honetan hau da, hain zuzen, ikerkizun hartu dugun bigarren atala, hots, egiten diren hutsak zeren eraginez egiten diren ikustea.

Lanaren egiturari dagokionez, metodologia eta entzuteko aukeratu den barietatearen azentuera aztertuko ditugu lehenengo eta behin. Hirugarren atalean inkesten emaitzak aurkeztu eta aztertuko ditugu. Azkenik ondorioak emango dira.

2. Metodologia

Metodologiari dagokionez, lehen aldi behin entzun eragingo genituen berbak aukeratuz gero, doinu-azentudun barietate bateko hiztun batez grabatu genituen. Aukeratu genuen hiztuna Gatikakoa izan zen eta 41 urteko andrazkoa. Esan beharra dago, hiztun honek kasu guztietan azentua lotzen duela tonu beherakadagaz.

Gatikako azentu eredua nahikoa ondo deskribatu dela esan dezakegu; orain arte egin diren azterketetan ikuspuntu desberdinak erabili izan dira gainera. Azentuaren ezaugarrien deskripzio txiki bat baino ez dugu hemen egingo, datu akustikoetan oinarritutako deskripzioetarako Gaminde (1993, 1994a, 1994b, 1995a, 1995b) eta Gaminde eta Hualde (1995) kontsulta daitezke.

Barietatearen azentuaren ezaugarriak ondoko era honetara labur ditzakegu:

(a) Bereizketa lexikoa: Morfemak (erroak eta atzizkiak) [+am] edo [-am] izan daitezke, [+am] atzizkiek azentua silabaren baten ezartzen dute.

(b) Hitzak [+am] morfema bat baino gehiago badauzka, lehendabizikoak erabakitzen du azaleko azentuaren kokagunea. Hitzean eratorpen atzizki bortitz bat badago, atzizki honek oinarri osoaren azentuera erabakitzen du

(c) [+am] morfemarik ez badago, talde prosodikoaren azken silabak jasotzen du azentua

Berba azentudunak azentu lexikala dutenak ditugu; azentu lexikalaren kokaguneari dagokionez, esan dezakegu ezen, berori azkena ez den beste edozein silabatan koka daitekeela; adibidez:

léku, kúku, máye, illéna, óllarra, txíndorra, íntxurre, bekóki, doméke, martítzena, okárana; e.a.

Berba azentubakoen azentua txertatzeko eremua sintagma osoa da, eta azken silaban txertatzen da. Bestalde, Gaminde eta Hualde-ri (1995) jarraikirik, doinu-azentudun sistema dugu euskalki honetakoa; beronek esan gura du azken silaban H*L tonua txertatzen dela. Beronek berba azentubakoekin honelako kontornoak ematen ditu:

a/badena\

la/guneri\

Berba azentudunen kasuan H*L azentu lexikala dagoen silaban txertatzen da:

lé\ku

o/ká\rana

Azentuaren bidez hainbat bereizkuntza egiten da; lexikoan, gramatika kategorietan eta perpaus mota batzuetan. Gaminde-ri (1997) jarraikirik ondokoan moduko bereizketak egiten dira:

Gatika		Gatika	
sillé	zila	sílle	aulkia
txistú	txua	txístu	txistua
ulé	ilea	úle	ulea
arté	arbola	árte	bitartea
ausí	hautsi	áusi	ahausi

Maileguetan aditza eta izena azentuaren kokaguneari bidez bereiz daitezke:

Aditzak	Izenak
tapá	tápa
kargá	kárga
probá	próba
kantá	kánta

Era berean hitz konposatu batzuk eta izen eta adjetibodun sintagmak ere bereiz daitezke:

Konposatua	Sintagma
sagúsarra	sagu sarrá
burúandi	buru andí
neskásarra	neska sarrá

Deklinabidearen singularrak eta pluralak:

Singularra	Plurala
lagunerí	lagúneri
semená	sémena
alargunék	alargúnek

Deklinabidearen pluralak eta mugagabeak:

Pluralak	Mugagabeak
étzetan	etzetán
érritten	errittén
bídetan	bidetán

Erakusle eta leku aditzondo arruntak eta "a" aurritzia gehitzen duten indartuak:

Arruntak	Indartuak
an	ân
a	â
arí	ári

Azentuera honen ezaugarriak gogotan gure esperimntua gauzatu ahal izateko, grabatu genituenak 25 berba izan ziren, 9 azentubakoak edo ez-markatuak, hots, azentua azken silaban hartzen dutenak eta 16 azentudunak edo markatuak, azkena ez den beste edozein silabatan azentua hartzen dutenak:

Ez-markatuak: umé, laguné, umerí (2), abadená, gixonarí, lagunená, lagunerí, alargunená

Markatuak: léku, máye, léngusu, sémeri, úmeri, gusúrri, solómo, lagúnena, lagúneri, mutílleri, lándareri, léngusune, alargúneri, alargúnena (3)

Azentua eta berben silaba kopuruen arabera sailkatuta honako hau dugu:

Silaba bikoak:

ó-o: léku, máye

o-ó: umé

Hiru silabakoak:

ó-o-o: léngusu, sémeri, úmeri

o-ó-o: gusúruti, solómo

o-o-ó: laguné, umerí (2)

Lau silabakoak:

ó-o-o-o: lándareri, léngusune

o-ó-o-o: lagúnena, lagúneri, mutílleri

o-o-o-ó: abadená, gixonarí, lagunená, laguneri

Bost silabakoak:

o-o-ó-o-o: alargúneri, alargúnena (3)

o-o-o-o-ó: alargunená

Behin grabatutako berbak edukiz gero, ordenagailu programa baten laguntzaz bergrabatu genituen entzuteko erabaki genuen ordenean. Inkesta beraz ondoko era honetara geratu zen:

1. lagúneri	14. lagúnena
2. alargúneri	15. máye
3. lándareri	16. laguneri
4. abadená	17. umerí
5. solómo	18. léku
6. alargunená	19. mutílleri
7. alargúneri	20. lagunená
8. gixonarí	21. alargúnena
9. alargúnena	22. sémeri
10. úmeri	23. umé
11. gusúruti	24. umerí
12. laguné	25. léngusu
13. léngusune	

Datuak jasotzeko Bilboko Irakasle Eskolako Musika Hezkuntzako lehen mailako ikasleak erabili ziren, euren edadeen batezbestekoa 19 urtekoa izan zen eta denetara inkestak 43 ikasleri entzun eragin zitzaizkien. Entzunaldiak talde txikerretan egin ziren eta denei birritan entzunarazi genien; lehenengoan euskalkiarekin


eta hiztunaren ahotsarekin trebatzeko eta bigarrean, denbora tartea emanda, azentua non susmatzen zuten adierazi behar zuten, horretarako berba guztiak idatzita eman zitzaizkien.

Informatzaileak ikasleak izan ziren eta musika ikasketak dauzkate denek, tasun honek zelanbaiteko abantaila auresuposatzen du, izan ere, beste hiztun talde batekin eginez gero, beharbada emaitzak bestelakoak izan litezke. Ikasle hauek euren ikasketak guztiak euskaraz egin dituzte orain arte, halandaze, euskaldun alfabetatuz hartu behar dira. Euren jatorriaren arabera lau talde egin ditugu; bizkaitarrak eta doinu-azentudun bariatateen eremukoak (B+p) zortzi izan dira (Bermeo, Mungia, Gernika 3, Markina, Aulesti eta Ondarroa). Bizkaitarrak, baina, gainerako bariatateetakoak (B-p) zazpi izan dira (Abadiño 2, Elorrio, Iurreta, Larrabetzu 2 eta Artea). Giputzak (G) hamalau, hauen artean 2 bizkaieradunak izan dira (Aizarnazabal, Alegia, Aretxabaleta, Azkoitia, Azpeitia, Bergara, Deba, Hernani 3, Orío, Tolosa, Urretxu eta Zarautz). Azkenik, euskaldun berriak (Be) hamalau izan dira.

Guzti honen arabera 1075 erantzunek osatuko korpua aztertu ahal izan dugu; hauetariko 688 (%64) azentudunei dagozkie eta 387 (%36) ez-azentudunei.

3. Inkestaren emaitzak


Gorago esaneko moduan, 43 informatzaileek emaneko 1075 erantzun jaso ditugu; horietariko 839 bat etorri dira Gatikako esatariak eginekoarekin, hau da %78,05, 236, ostera oker eman ziren, % 21,95.



1. Irudia: Erantzun okerren kopurua.

Berba azentudun (+a) eta azentubakoien (-a) araberako sailkapena eginda, ondoko era honetara eman ditzakegu bat ez datozen kopuruak:


	Orotara	Ehunekoa
-a	133	34,37
+a	103	14,97



2. Irudia: Okerren kopurua azentudun eta azentubakoen arabera.

Okerretan kopururik handiena berba ez-azentudunetan gertatzen da; oker horiek berbaren silaba kopuruaren arabera ondoko taulan ikus daiteke, eduki bedi kontutan azentua azken silaban txertatuta agertzen dela:


	Orotara	Ehunekoa
2	1	2,33
3	24	18,06
4	82	47,67
5	26	60,47



3. Irudia: Azentubakoen okerrak berbaren silaba kopuruaren arabera.

Txarto egineko kopurua informatzaile taldeen arabera aztertuta ondoko taula hau daukagu:


	Orotara	Ehunekoa
B+p	7	9,72
B-p	20	31,75
G	37	29,36
Be	69	54,76



4. Irudia: Okerren kopurua informatzaile taldeen arabera.

Taulan ikusten den moduan doinu-azentu ez daukaten bizkaitarren eta gipuzten portzentaia oso antzekoak dira. Kopururik baxuena euskaldun berriena da. Aztertzen baditugu emaitzak taldeka eta silaba kopuruak kontutan hartuta ondoko portzentaia daukagu:

	2	3	4	5
B+p	0	0	4	12,5
B-p	0	5	23,81	11
G	0	4	9,52	25
Be	1	7,14	15	35,71




5. Irudia: Okerrak informatzaile taldeka eta silaba kopuruaren arabera.

Taulan ikusten den moduan zenbat eta silaba gehiago eduki orduan eta akats gehiago egiten da talde guztietan. Hiru silabako txarto ulertuko guztietan azentua 2. silaban susmatu da; lau silabakoetan lehen silaban 2 (%2,45); bigarrenetan 67 (%81,7) eta hirugarrenean 13 (%15,85) eman ziren. Bost silabakoetan egindako okerrak ondoko era honetara banatzen dira: 2. silaban 5 (%19,24), 3. silaban 19 (%73,07) eta 4. silaban 2 (%7,69).

Egin diren akatsak aztertu ahal izateko, hasieratik kontatzen hasita azentua bigarren silaban (2), hau da, tonu igoerarekin batera susmatu den edo azkenaurrekoan egin den (2) aztertuta; ondoko hau

daukagu (hiru silabakoak baztertu ditugu, izan ere, talde bietan koka daitezke):

	[2	2]
2	-	1
4	67	13
5	5	2
Oro	72	16
%	81,81	18,19




6. Irudia: Okerren norabidea.

Datu hauen arabera, esan dezakegu Elordietak eta lagunek (1998) esanekoa baieztatzen dela, izan ere, azentua tonuaren igoerarekin lotu da kasu gehienetan.

Berba azentudunen okerren kopurua askoz ere apalagoa izan bada ere (103), azterketa bera egin dezakegu.

Okerren portzentaiak silaben kokaguneen arabera honako hau dugu:


	1	2	3
okerrak	24	28	51
denetara	301	172	215
%	%7,97	%16,28	%23,72



7. Irudia: Okerrak silaben kokaguneen arabera.

Okerrak informatzaile taldeen arabera sailkatuta ondoko taula hau dugu:


	Kopurua	%
B+p	12	9,37
B-p	15	13,39
G	31	13,84
Be	45	20,09



8. Irudia: Okerrak informatzaile taldeen arabera.

Azkenik, arteragokoekin egin dugun moduan, okerrak silaben kokagune eta informatzaile taldeen arabera sailkatuta, beste hau dugu:

	1	2	3			
B+p	2	16,67	3	25	7	58,33
B-p	4	26,67	4	26,67	7	46,66
G	7	22,58	10	32,66	14	45,16
Be	11	24,44	11	24,44	23	51,12



9. Irudia: Okerrak silaben kokagune eta informatzaile taldeen arabera.

Taulan ikusten den moduan berbaren silaba kopurua gehitzen den gainoan gehitzen da akats kopurua talde guztietan, hots, zenbat eta silaba gehiago egon orduan eta akats gehiago.

Euskaldun zaharren emaitzak aztertzean, orain arte esanda daukagu barietate bereko informatzaileak direna akats gutxien egin dutenak eta Bizkaiko gainerako informatzaile eta giputzen artean ez dagoena alde handirik. Edozelan ere, talde bakoitzaren barnean akatsak zelatan banatzen diren aztertzeari interesgarri iritzi diogu eta jarraian emaitzak ikusiko ditugu taldeka.

Doinu azentudun barietateetako informatzaileek 19 akats egin dituzte (%9,5). Informatzaileen jatorriaren arabera akats kopuruak ondoko taulan ikus daitezke:

	Orotara	%
Bermeo	0	0
Mungia	2	8
Gernika (1)	6	24
Gernika (2)	5	20
Gernika (3)	0	0
Markina	3	12
Aulestia	0	0
Ondarroa	3	12

Informatzaileen artean gertatzen diren desberdintasunak uste dugu faktore desberdinek eraginekoak direla. Batetik, jatorrizko ereduarekiko desberdintasunak eragina izan behar du (Markina, Aulestia eta Ondarroako kasuetan); hala ere, uste dugu euskara maila ere garrantzitsua izango dela, horrela uler dezakegu gernikarren artean gertatzen den aldea (ezin ahaz daitezke beste eragile batzuk, hala nola, inkestaren baldintzak, informatzaileen interesa, e.a.)

Bizkaiko gainerako barietateetako informatzaileen emaitzak ondoko taulan agertzen dira; denetara 35 akats egin dituzte zazpi informatzaileek, hots, % 20a:

	Orotara	%
Abadiño (1)	9	36
Abadiño (2)	1	4
Elorrio	8	32
Iurreta	4	16
Larrabetzu (1)	1	4
Larrabetzu (2)	5	20
Artea	7	28

Gipuzkoako informatzaileek 68 akats egin dituzte (%19, 43); ondoko taulan akats horien banaketa ikus daiteke:

	Orotara	%
Aizarnazabal	5	20
Alegia	3	12
Aretxabaleta	4	16
Azkoitia	6	24
Azpeitia	7	28
Bergara	2	8
Deba	2	8
Hernani (1)	6	24
Hernani (2)	6	24
Hernani (3)	5	20
Orio	8	32
Tolosa	6	24
Urretxu	6	24
Zarautz	2	8

4. Ondorioak

Jaso ditugun datuetatik eta egin ditugun azterketetatik atera daitezkeen ondorioak garrantzitsuenak honako hauek dira:

(a) Akats kopururik altuena berba azentubakoetan gertatzen da.

(b) Akatsa gertatzen den kasu gehienetan tonu igoera azentutzat jo da; beraz, tonu igoera eta azentu pertzepzioa nahikoa loturik agertzen dira, nahiz jatorrizko hitzunek azentua tonu beherakadarekin elkartzen duten.

(c) Doinu azentudun barietatea jatorriz ez daukaten euskaldun zaharren artean ez dago desberdintasun handirik, hots, euskalkiak ez dauka garrantzirik, bizkaitarrek eta gipuzteak akats kopuru antzekoak daukate. Haatik, informatzaileen euskara maila eta beste faktore batzuk eragin handiagoa daukatela pentsa liteke.

(d) Akats gehienak egiten dituztenak euskaldun berrien taldekoak dira. Hau normala da, pentsatu behar da azentuera honen gaineko ez dutela ez trebakuntzarik eduki ez eta dagoenik ere ez dute jakin. Esan nahi dugu ezen, ustez euskaldun ikasiak izan arren, azentua ez dutela sekula landu.

Azkenik, aurrerantzean interesgarri izan daiteke antzeko esperimenduak egitea beste barietate batzuekin; batez ere, aldeak, baleude, ezagutzeko eta pertzepzioaren gaineko arazoetan sakontzeko.

5. Aipamenak

- Elordieta, G.; Gaminde, I. eta Hualde, J. I. (1998). Euskal Azentua Gaur eta Bihar. *Euskera* 43, 399-423. or.
- Gaminde, Iñaki (1991). Tonuarekin lotutako ulermen mailako testa *Uztaro-3*, 97-108
- Gaminde, I. (1993). *Urduliz eta Gatikako herri hizkeren azterketa linguistikoa*. Doktorego tesia. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1994a). Urduliz eta Gatikako azentu ereduaz-I, *Uztaro-11*, 55-88, Bilbao: UEU.
- Gaminde, I. (1994b). Urduliz eta Gatikako azentu ereduaz-II", *Uztaro-12*, 88-110. Bilbao: UEU.
- Gaminde, I. (1995a). Los tipos de acento del dialecto vizcaíno del euskara: aproximación acústica. Elejabeitia, A. eta Iribar, A. (arg) (1995): *Phonetica: Trabajos de fonética experimental*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.
- Gaminde, I. (1995b). *Bizkaieraren azentu-moldeez*, Bilbao: Labayru Ikastegia.
- Gaminde, I. eta Hualde, J. I. (1995). Euskal azentuereduen atlaserako: zenbait isoglosa" *ASJU*-n agertzeko.
- Gaminde, Iñaki (1997). *Gatikako Euskaraz*. Gatika: Gogoz Euskara Taldea.